

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

#### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 28ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

— **Foru dekretuak:**

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena 2019ko ekitaldian aplikatzeko irizpideak.

**GIZARTE ZERBITZUEN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 72/2018 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea alda dadila Kontseiluaren abenduaren 28ko 77/2012 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu baitziren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen lan baldintzak (lanaldia, oporrak eta baimenak).

— **Erabakiak:**

**DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 771/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea kontrako irizpenari, zeinak adierazten baitu Arabako Batzar Nagusiek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena aintzat hartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 772/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea bi urterako luzatzeari Trebiñuko enklabea dela-eta Burgosko Diputazioarekin izenpetutako lankidetzarako esparru akordioa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 773/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Burgosko Diputazioarekin Trebiñuko enklabea dela-eta adinekoen eta ezintasunak eta mende-kotasunak dituztenen gizarteratze eta gizarte arretaren arloan izenpetutako esparru akordioa garatzeko lankidetzak hitzarmena aldatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 774/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Trebiñuko enklabea dela-eta arte ondasun kalifikatuak edo kultura babesteko sistemak babesten dituztenak onik zaintzeko, mantentzeko eta zaharberritzeko proiektuen arloan Burgosko Diputazioarekin izenpetutako esparru akordioa aldatzeko gehigarriari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 775/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Trebiñuko enklabea dela-eta arte ondasun kalifikatuak edo kultura babesteko sistemak babesten dituztenak onik zaintzeko, mantentzeko eta zaharberritzeko proiektuen arloan Burgosko Diputazioarekin izenpetutako esparru akordioa zehazteko gehigarriari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 776/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea jaso dadila OGP (Open Government Partnership / Gobernu Irekiaren Aliantza) Euskadi 2018-2020 ekintza plana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 777/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 5+11 Fundazioari dirulaguntza eman dakiola 2019an Arabako Lurralde Historikoan prestakuntza, elkartasun eta gizarte kohesioko programak antolatzeko.

## EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 778/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea gauzatze eragiketarak 2018. urtetik 2019. urtera birbanatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 779/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 1.000 biztanletik beherako udalerrietan erroldatuta dauden autonomoei laguntzak emateko hirugarren leerroaren zenbatekoa berresleitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 780/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Mendialdea proiektu pilotua, zeina baita abian jartzeko despopulazioari aurre egiteko eta maiatzaren 27ko 37/2018 Mozioan adostutako estrategiak garatzeko ekintzak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 781/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Navaridasko Udaleri dirulaguntza zuzen bat ematea, zenbait jardun egin ditzan antzinako gizarte zentroan, herrigunera sartzeko landa bideetan eta Sodupe jauregia egokitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 782 /2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Espejoko SISEUaren eraikina handitzeko obren kontratua aldatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 783/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza bat eman dakiola Arabako Kontzejuen Elkarteari (AKE), 2018ko baliabide materialak eta giza baliabideak finantzatzeko lankidetzak hitzarmenaren osagarri gisa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 784/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 2017/2018 ikasturtean batxilergoko, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdiko tarte orokorreko dirulaguntzen emakida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 785/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Bilboko Portuko Agintaritzaren alde 204.041,73 euroko zenbatekoa, 2019rako konpromiso kreditu gisa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 786/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea lankidetzak hitzarmena izenpetu dadila Arabako Ikus-entzunezko Edukien Ekoizle Independenteen Elkartearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 787/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea maiatzaren 29ko 264/2018 Erabakiz onartutako ikus-entzunezkoen proiektuak garatzeko eta ekoizteko eta gidioak idazteko laguntzen 2018rako deialdiaren ebazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 788/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea lankidetzak hitzarmena izenpetu dadila Diocesanak-Jesus Obrero Fundazioarekin (Egibide) eta Ikaslan-Arabarekin, marketing digitalaren arloan.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 789/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea eguneratu daitezela Aldundi honen eta bere erakunde autonomoen lanpostu zerrendak, esleitutako berriazko osagarriari dagokionez, langile lan kontratudunen soldata taulak eta goi kargudunen eta behin-behineko langileen ordainsariak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 790/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea alda dadila Arabako Foru Aldundiaren eta bere erakunde autonomoen 2018rako Proiektu Informatikoen Urteko Plana.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 791/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea foru sektore publikoko 2019ko ekitaldirako urteko kontratazio plana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 792/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea dirulaguntza arrunt eta kapitalekoak ematen dituzten 2018ko xedapen, hitzarmen eta dirulaguntza izendunen indarraldia, 2018ko aurrekontuaren 2019rako luzapenak dirauen bitartean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 793/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 34/2018 konpromiso kreditua sortzea, 15.742,42 eurokoa, 2018ko urteotik 2019kora, gastuen egoeren partida hauetatik: (Unean-uneko deialdia" eta "Unean-uneko proiektuen deialdia". Helburua: aurrekontu esleipenak doitzea dirulaguntza deialdiak ordaindu beharrari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 794/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea konpromiso kreditua birbanatzeko zenbait espediente, "Salburuko tranbia luzatzeko hitzarmena", "CCA tranbia hegoaldera luzatzeko hitzarmena" eta "BEI-BEA hitzarmena" partidei dagozkienak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 795/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 2018ko urtekoa 2019an banatzeko 63/2018 konpromiso kredituaren espedientea, 204.041,73 eurokoa, gastuen egoeraren "Arasur finantzatzeko hitzarmena, AAAK" partidan, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 796/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea foru aldundia-  
ren aurrekontuko 169/2018 kreditu transferentziaren eta Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren aurrekontuko 3/2018 kreditu gaitzearen (180.000,00 euro) espedienteak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 797/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 173/2018 kreditu transferentziaren espedienteari, 43.003,81 eurokoa, "Kreditu orokorra" partidara bideratzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 798/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 176/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 20.000 eurokoa, funtsez hornitzeko sortu berri den "Hitzarmena Apikarekin" partida, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 799/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea 185/2018 kreditu transferentziaren espedienteari eta 32/2018 kreditu gaitzearen espedienteari, 23.011,45 euroko zenbatekoan, Aldundiaren jauregiari buruzko libururako partida sortu berri-rako, zeinak Diputatu Nagusiaren Sailak eskatu baititu.

Foru Gobernu Kontseiluaren 800/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, "Burgos hitzarmena Argantzongo ospitalea" eta "Gasteizko eliz-barrutia -Trebiñu hitzarmena" partida sortu berriak funtsez hornitzeko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 801/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, "5+11 Fundazioa" partida funtsez hornitzeko, 5+11 Fundazioari ema-  
ten zaion dirulaguntzaren indarraldia luzatze aldera, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 802/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, "Navaridasko Udala" izeneko partida sortu berrirako, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 803/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 18/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 885.000 eurokoa, "Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa" partida funtsez hornitzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 804/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 19/2018 kre-  
ditu transferentziaren espedientea, 113.000 eurokoa, "Enplegua sortzeko plana. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa" partida funtsez hornitzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 805/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 28/2018 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, "AFArek Gobernu Irekiaren Ataria" partidan, aurrekontu esleipena lanak egiteko erritmora egokitzeko, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 806/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea "Miguel Angel Blanco Fundazioa" gastu egoerako partidan 41/2018 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

807/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea "Jendegabetze estrategia - autonomoak" gastu egoerako partidan 45/2018 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, Ekonomia Sustapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 808/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 54/2018 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, "BABY Proiektu Zinematografikoa" gastu egoeraren partidan, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 809/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 64/2018 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, "Espejoko SISEU Handitzea Hobetu, ALP" gastu egoeraren partidan, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 810/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 52/2018 eta 54/2018 konpromiso kredituak birbanatzeko espedienteak, 7.120.440,00 eta 1.933.450,00 eurokoak, hurrenez hurren 2019 eta 2020 urteei dagozkienak, "2018-2019 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana" eta "Zuzkidura osagarria: P. F. O. S. 16-17. C. C. A." gastu partidetan, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 811/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea konpromiso kreditua 2018. urtealditik 2019. urtealdira birbanatzeko 65/2018 espedientea, 168.000,00 euroan, gastuen egoerako "Azpiegitura hidraulikoen esparru akordioa" partidan, hala eskatu baitu Ingurumen eta Hirigintza Sailak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 812/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea hainbat konpromiso kreditu birbanatzea, 149.761,00 euroko zenbatekoaz guztira, 2018ko urtetik 2019ko urtera, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eta Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 813/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea "Lurralde Oreka Sustatzeko ekimenak" aurrekontu programako aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 814/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, "Dirulaguntzak ura kudeatzeko erakunde berriarentzat" izeneko partidarako, dirulaguntza bat esleitzeko Troperagaingo Urkidetzari, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 815 /2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 181/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 112.975,51 eurokoa, "Kreditu orokorra" partidara bideratzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 816/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 197/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 23.500 eurokoa, "Arabako Kontzejuen Elkartearekin Hitzarmena" partidarako, Ekonomia Garapen eta Lurralde Orekaren Saila eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 817 /2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 20/2018 kreditu transferentziaren espedientea, 627.000 eurokoa, "Kotizazio gabeko pentsioaren prestazioa" partida funtsez hornitzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 818/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea foru aldundiaren aurrekontuko 38/2018 gastuaren zuzenketa teknikoaren eta Gazteriaren Foru Erakundearen aurrekontuko 3/2018 kreditu gaitzearen (45.080 euro) espedienteak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 819/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea baliogabetze bajen 5/2018 espedientea, 17.842,30 eurokoa, eta 28/2018 kreditu gaitzearen espedientea, 20.448,73 eurokoa, abenduan zehar kontratatu ahal izateko hondakin uren zenbait araztegi (HUA) ustiatzeko, mantentzeko eta zaintzeko lanak, Ingurumen eta Hirigintza Saila hala eskatuta.

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 820/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden funtzionario plazen 2018rako enplegu publikoaren eskaintza.

Foru Gobernu Kontseiluaren 821/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespina ematea funts bat ezartzeari, 2018an Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu publikoak modernizatu eta arrazionalizatzeko eta langileen produktibitatea hobetzeko, bai eta benetan egindako lanaldi ebaluagarriari loturiko produktibitatea ordaintzeko funtsa eratzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 822/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Gasteizko Udalari ordaintzea Gizarte Zerbitzuen Sailerako Aparteko Funtseko zatia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 823/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea 2019rako zerbitzu eta programa hitzarmena luzatzea erakunde publikoekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 824/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea alda daitezela gizarte zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeko Gasteizko Udalarekin egindako eskumenei buruzko esparru hitzarmenaren VI. eta VII. eranskinak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 825/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea aldatu eta luzatu dadila Gasteizko Udalarekin izenpetutako lankidetz hitzarmena, Arabako Lurralde Historikoko gizarte larrialdien zerbitzua gauzatzeko dena.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 826/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretu bidez onartutako Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak edo espezifikoak dituzten zonetako nekazaritza ustategientzako laguntzen deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 827/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzen eta nekazaritza ekologikoko laguntzen deialdiaren ebazpena, deialdia Kontseiluaren apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 828/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko eta Aldundiak Done Jakue egunean antolatutako azokara joateko abeltzaintza laguntzen ebazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 829/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza bat esleki dakiola Gasteizko Udalari, 2018an haren mendeko animaliak babesteko zentroan izandako gastuen zati bat ordaintzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 830/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea zuzeneko laguntza bat eman dakiola Arrato ureztatzaile elkarteari, bere sareko adar bat ordeztzeko.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 831/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea "Arabako Errepideen 2004-2015 Plan Integrala 2016-2017 aldirako eguneratzeko, aldatzeko edo berraztertze proiektua", bai eta behin betiko onespina emateko foru arau proiektua ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 832/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespina ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarlanean jarduteko hitzarmeneko izendapenak egokitzeari, Gasteizen autobus elektriko adimenduna ezartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 833/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Gasteizko Udalarekin eta Euskal Trenbide Sarearekin administrazio, teknika eta finantza arloan elkarlanean jarduteko hitzarmeneko izendapenak egokitzea, Angulema-Unibertsitate tartean Gasteizko tranbiaren hegoaldeko luzapena finantzatu eta eraikitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 834/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea 2019rako eguneratzeari bidaiarien erabilera orokorreko errepide bidezko garraio erregularren emakida hauei aplikagarri zaizkien bidaiarien tarifak: AR-01 Araba erdialdea, AR-02 Aiara, AR-03 Arabako Errioxa eta C-01 Miranda/Gasteiz/Durango.

Foru Gobernu Kontseiluaren 835/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea AP-1 autobidearen erabiltzaileek 2019 ekitaldian VIASARI ordaindu behar dizkioten bidesarien zenbatekoak, ibilgailu motaren eta Arabako Lurralde Historikoko zatien arabera.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 836/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Añanako Gatz Harana Fundazioarentzat 2018rako Arabako Foru Aldundiaren transferentziaren zenbatekoa 50.000 euroan handitzea.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 837/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea kontratua abenduaren 31 arte luzatzeari Agurain, Dulantzi, Maeztu, Izarra, Santikurutze Kanpezu, Bernedo, Araia, Harana, Gaubea eta Zuhatzako uharteko hondakin uren araztegiak ustiatu, mantendu eta onik zaintzeko, eta abendurako 26.961,87 euroko diru esleipena egiteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 838/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea martxoaren 13ko 127/2018 Erabakiz esleitutako "Santikurutze Kanpezun garbigune-bilketagune bat eraikitzeko proiektuaren" obren azken ziurtapena, 18.273,56 euro gehiagorekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 839/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Arabako garbiguneen sarea kudeatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeari, 853.413,00 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta gauzatzeko 3 urteko epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 840/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea Contenedores Escor Vitoria SL enpresaren alde aurreikusitako diru esleipena gehitzeari, eraikuntzako eta inausketako hondakinak eta hondakin handiak kudeatzeko (1. lotea), erantsitako unitateko prezioen arabera, 4.500 euroko zenbatekoan, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 841/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrari 2018ko abenduaren 31ra arte luza dakiola justifikazio epea, energia efizientziarako ekintzak eta biomasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko laguntzen lerro bat justifikatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 842/2018 Erabakia, abenduaren 28koa. Onestea Troperagaingo Urkidetzari dirulaguntza ematea, Arabako Lurralde Historikoko ur partzuergo berria abian jartzeko.